

ELIZA SINDIKATOEN ETA LANGILEEN ARTEAN

Orain dela urtebete, KARMEI-editorial batek argi erakusten zizkigun histori-idazle askoren konplejuak...

Konpleju horiek tinko diraute beste arlo batzutan ere; bizitzan batipat... Egia eta bizia isiltzea, batez ere Eliza tarteko danean: irrati, telebista, egunkari eta aldizkarietan...

Konplejuz josirik hamaikatxo idazle eta kazetari...

Nozibait, zapi zikinak bailiran, konpleju horiek jaurti eta egiari leialki men egingo bagenio...!

Ez dut beldurrik nahi, ez isiltasunik; egiaren argitara asko bitez Euskadiko bihotz-begiak. Biziek merezi dute aske izatea!

ELA-ren 75. urteurrena dela eta langabeziak sorrerazten duen bihotz-dardaraz oharturik, gogoeta batzutan murgildu naiz.

Hamaikatxo bider ekiten diot marmarrari, eliztar batzuk, eguneroko bizitzan badaezpadaoak izanik, elizara joaten direlako; eta agian, sarri gertatuko da horrela...

Baina beste alde batetatik ikusiz, eliztar horiek, adibidez Bizkaiko eliztarrak, azkenengo 6 urteotan 500.000.000 eman dituzte lanik gabe daudenentzat; borondate onez eta inork behar-

tu gabe eman ere. Behartsurik behartsuenentzat... Ekintza hori hor dago! Nik eta elizan sartu ere egiten ez garenok zer egiten dugu lanik ez dutenen alde... Zarata atera...? Errudunak salatu? Baina ezertan lagundu bai?

Euskal sindikatuen sorreran eta hauren buru direnen inguruan (ELA-ren kasuan behintzat), elizgizonak ibili dira bizi berria sortzen, langileen alde arnasa ematen...

Euskadiko kooperatiben sorreraz ere beste horrenbeste esan dezakegu. Hor dago J.M. Arizmendiarieta-ren lana... hor Elizaren seme-alaben arnasa bizia...

Karitas erakundeak ekinahalean dihardu behartsuen negarrak poztasun bihurtzen... Orain Europako erakundeak, Espainiako pobretasuna eta langabezia zenbaterakoa den zehatz-mehatz jakiteko Karitas-era jo du eta ez estatuko erakundectara... Egia jakin nahi duelako...

Gizaseme bat, Kristo, biztu zenetik, hor dago ELIZA, pekatuan mindurik bizi arren: gizarteari bizi-arnasa ematen. Hasierra ona ematen, isilean bizia sortzen.

Sinestunok ez ditugu ukatzen Elizaren seme-alaben pekatuak, baina behartsuen alde borondatez eta dohainik hark egingakoa benetan handia, txalogarria da. Zuzenbide bila, bakegosez ari da gizonen bizitza zoriontsuago egin nahirik. Zergatik ez aitortu Elizaren beste alderdi on hau ere? «Bakoitzari berea, Jainkoaren legea».

Konpleju eta aurreritzirik gabe.

Hain zaila ote da egiaren guna ezagutu eta onartzea?

Ikusi eta ikasi beharra besterik ez dago.

Egun hauetako auteskundeetan, propaganda egiteko, Espainiako alderdiek 10.000.000.000 pezeta edo eralgi omen dituzte... Ikus-ikas! 10.000.000.000 zertarako? Demokraziaren alde? Bai zera! Dirutza hau horrela botatzea zera ez al da, ba, demokraziarik ezaren seinalerik argiena? Diruaren diruz sentimenduak alda-

tu nahirik dabilta; egia okertuz, gezurra nagusi gerta dadin aha-
leginetan. Botuak bakarrik balio dute; botua da garrantzitsua...
eta ez botua ematen duen pertsona; langabezian daudenak ere
ez dira garrantzitsuak. Botuak bakarrik... Elizak 500.000.000 pe-
zeta bildu izan ditu sei urtetan behartsuentzat. Baina gizartea
gaizki gobernatzen dutenek bi hilabetetan 10.000.000.000 bota
dituzte hor zehar, demokraziaren agindupean dabiltzalakoan...!!
Nor dago benetan langileen alde? Nor behartsuen alde?

EDITORIALA

5